



## SANTIAGO EGUNEAN –UZTAILAK 25– ETA ANDRE MARIA ZURIAREN JAIETAN – ABUZTUAREN 4TIK 9RA– OINEZ EGITEN DEN SALMENTARAKO BAIMENAK ESLEITZEKO 2019 ETA 2020KO DEIALDIAREN OINARRIAK

### 1. OINEZKO SALMENTAREN EZAUGARRIAK

Santiago egunean –uztailak 25– eta Andre Maria Zuriaren jaietan –2019ko eta 2020ko abuztuaren 4tik 9ra– jaietako puxikak, txanoak, lepo-zapiak eta beste oinez saltzeko baimenak esleitzea du xede deialdiak. Hona hemen esleipendunek betebeharrekoak: Hona hemen esleipendunek bete beharrekoak:

Gehienez ere **40** baimen emango dira jaietan tipikoak diren objektuak oinez saltzeko.

### 2. ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Eskabideak **ekainaren 3tik 14ra** bitartean aurkeztu behar dira eta **agiri hauek** erantsi behar harko zaizkio:

- Eskabidea/erantzukizunpeko aitortpena, behar bezala beteta (erantsitako ereduaren arabera).
- **Titularraren eta titularkidearen agiri tamainako argazki bat.**
- Titularraren eta titularkidearen nortasun-agiriaren fotokopiak, edo Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako lan eta egoitza baimenen fotokopiak.

Ezetsi ahal izango da aurreko dokumentazioa ematen ez duen edota aurtengo modelo ofizialarekin bat ez datorren eskabidea.

Agiri horiek leku hauetan aurkeztu behar dira:

- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa
- Herritarrei laguntzeko bulegoak.



- Gasteizko Udalaren bulego teknikoak: Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, 01008.
- Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945161100

Eskaera postaz Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— bidaltzen denean posta ziurtatuz egin behar da. Bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, eta egun horretan bertan jakinarazi beharko dio eskabidea egin duela Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoz ([comercio@vitoria-gasteiz.org](mailto:comercio@vitoria-gasteiz.org)), ekainaren 14ra arte (egun hori barne). Jakinarazpenak balioa izan dezan, jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita komunikazioaren data eta eduki osoa ere, eta **era frogagarrian identifikatu** beharko dira igorlea eta hartzailea. Bestela, baliteke eskabidea ezestea.

Titular eta titular-kideek eskabide bakarra aurkeztu ahal dute. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, Udal Erregistroan lehenik aurkeztu dena bakarrik hartuko da aintzat. Pertsona bera titular gisa ageri bada eskabide batean eta titularkide gisa beste batean, bi eskabideak ezetsiko dira.

### 3. PROZEDURA

---

Oro har, ez da salmenta-eskabiderik onartuko deialdi honetan ezarritako epe ofizialetik kanpo. Bakarrik deialdi honetan ezarritako epe ofiziala amaitzean saltokien kopurua baino eskabide gutxiago jaso badira onartu ahal izango da epea gaintu ostean aurkeztutako eskabiderik, ekainaren 23ra bitartean. Halakorik gertatuz gero, saltokien gehieneko kopurua (40) betetzeko behar beste eskabide hartuko da aintzat, betiere eskabideak Udal erregistroan sartu diren dataren hurrenkerari jarraituko.

Jasotzen den eskabide kopurua esleitzeko dagoen baimen kopurua baino altuagoa bada zozketa bidez esleituko dira. Esleipendun suertatzen ez diren eskabideekin erreserba zerrenda osatuko da, zozketarekin bat datorren hurrenkeraren arabera.

Zozketa **ekainaren 24ean** egingo da, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailean, eta emaitza aktan jasoko da.



#### 4. EMAITZEN ARGITARAPENA ETA LIZENTZIAK JASOTZEA

---

Esleipendunen zerrenda eta, kasua bada, dagokion erreserba zerrenda **uztailaren 8tik** aurrera argitaratuko da Udalaren web-orrian eta iragarki-oholean. Halaber, Udalaren argibideetarako 010 telefono zenbakira deituta (945 161100 Gasteiztik kanpo deituz gero) jaso ahalko da informazio hori.

#### 5. TASAREN ORDAINKETA

---

Jabetza Publikoko Ondasunak Pribatiboki Erabiltzearen edo haien Baliatze Bereziaren Tasak Arautzen dituen Ordenantzan (7.1 ordenantzaren 5. epigrafea) jasotzen da 2019.urtean bide publikoan jaietako puxikak, lepo-zapiak, txanoak eta beste oinez saltzeagatik tasa, **104,04 €** koa baita.

Urtero dagokion tasa, **uztailaren 8tik 17ra** bitartean ordainduko da modu hauen bidez:

- Kutxabank, Laboral Kutxa, Bankoa, Caixabank, Caja Rural Navarra eta Banco Santanderren edozein bulegotan, beraiek ezarritako ordutegian, Gasteizko Udalak jaulkitako ordainketa-agiriarekin.
- Herritarrei laguntzeko bulegoetan, finantza-erakundeekin hitzartutako kreditu-txartelen bidez.
- San Martineko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, beheko solairua), dirutan, txeke bidez edo finantza-erakunderen batekin hitzartutako kreditu-txartela baliatuz. Ordutegia: 8:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, lanegunetan. Telefonoak: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00).
- Internet bidez, web orri honetan: [www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/ogasuna)

Ezarritako epean tasa ordaintzen ez duten esleipendunek baimena galduko dute. Kasua hori denean, baimen horiek erreserbako zerrendan daudenei emango zaizkie, ezarritako hurrenkerarekin bat eta dagokion tasa ordaindu ondoren.



## 6. BAIMENAK

---

Baimenak **uztailaren 17tik 24ra** bitartean jasoko dira San Martineko udal bulego teknikoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, beheko solairua ), 8:30etik 14:00etara, eta horiek jaso ahal izateko baimenaren titularrak nortasun agiri originala edo egoitza eta lan-baimen originalak (atzeritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen duenaren arabera) aurkeztu beharko ditu, eta dagokion tasa ordainduta izan. Baimenak urtero jaso beharko dira, 2019 eta 2020an.

## 7. SALTOKIETAKO LANGILEAK. BETEKIZUNAK

---

- a) Baimenen esleipendunek eta ez beste inork jardun ahalko dute saltzen.
- b) Gasteizko Udalarekin inolako zorrik ez izatea. Ofizios egiaztatuko du Gasteizko Udalak hori horrela den, jasotako eskabideak baloratzekoan. Baztertu egingo da baloratzeko unean eskakizun hori betetzen ez duen eskabide oro.
- c) Gizarte Segurantzaren Erregimenean alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea.
- d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe egokietan alta emanda egotea eta horri dagozkion kopuruak ordainduta edukitzea.
- e) Hirugarren herrietako mailegatzailleek akreditatu behar izango dute bizileku-baimenak eta lana kontuetan indarreko legerian ezarritako beharrak betetzea.
- f) Ekonomia jardueraren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea eta ordaintuta egotea.
- g) Higiene eta osasun edo beste izaera bateko arautze espezifikoek ezarritako baldintzak betetzea.
- h) Lizentziak norberak eta ez bestek erabiltzeko izango dira, debekatua dago haiek eskualdatzea.
- i) Baimenaren titularrek jendeak, oro har, zein ikuskatzaileek erraz ikusteko moduan jarri beharko dituzte honakoak:
  - Udal-baimena.
  - Jarduerak eragin ditzakeen erreklamazioak jasotzeko helbidea.



- j) Gainerako betekizunei dagokienez Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko Ordenantzan ezarritakoari jarraituko zaio.

## **8. SALTOKIAK JARTZEKO BALDINTZAK**

---

- a) Jaietan tipikoak diren txanoak, puxikak, lepo-zapiak eta abar saltzeko baimenak uztailaren 25ean eta abuztuaren 4ko 20:00etatik abuztuaren 9ko 24:00etara baino ezin izango dira erabili.
- b) Honakoak saldu ahalko dira: puxikak, txanoak, lepo-zapiak eta jaietan tipikoak diren bestelakoak.

Aipatu diren artikuluez aparte bestelakoak saltzen badira, bahitu edo atzeman ahalko dira, eta dagokien dossier zigortzailea abiaraziko da, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean eta Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzan xedatutakoarekin bat.

- c) Posta kalean (Prado kaletik Foru kalera bitarteko zatian) eta Independentzia kalean (Foru plazako zatian) ezin izango da saldu.
- d) Oinezko salmentarako baimenak ibilian ibiltzeko aritzeko dira, eta, hortaz, ezin izango da leku finko batean jarrita egon.